


Oletakorta

Ekonomia solidarioko abentura bat

AMAIA BALLESTEROS



reas
euskadi

Asociación de entidades de voluntariado social
neto de economía alternativa y utilitaria



ALBOAN

Asociación de voluntariado social

Oletakorta

Ekonomia solidarioko abentura bat



OLETAKORTA, EKONOMIA SOLIDARIOKO ABENTURA BAT
2015eko urria

Alboan Fundazioa

Aita Lojendio 2 kalea, 2. Solairua 48008 Bilbo
Tel.: 944 151 135
alboan@alboan.org
www.alboan.org
Twitter: @ALBOANongd

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Venezuela Plaza 1, 2. ezk ezk 48001 Bilbo
Tel.: 944 160 566
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi
Twitter: @REASEuskadi

Gidoia eta marrazkiak: Amaia Ballesteros

Itzulpena: Labayru Fundazioa

Argitalpena: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-1544-2015

Finantzatzaileak:



GARAPENERAKO
LANBIDEZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Aitoru-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiatzeko, bantatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>



BOST LAGUN LANGABE HITZ-ASPERTUA EGITEKO ELKARTU DIRA, ETA, BIDE BATEZ, ASPALDIDANIK BURUAN BUELTAKA DAUKATEN PROIEKTU BAT MARTXAN JARTZEKO, GIZARTEA ERALDATZEKO ASMOZ: NEKAZARITZA-TURISMOKO BASE-
RRI BAT IREKI NAHI DUTE MENDATAN (GERNIKA), ETA, BERTAN, ANIMALIA BATZUK, ORTU EKOLOGIKO BAT (BEREN
BEHARRAK ASETZEKO ETA BAITA FRUTAK ETA BERDURAK SALTZEKO ERE), ETA GOZOGINTZA- ETA OGI-LANTEGI BAT
JARRI. ALEGIA, FUNTSEAN, EKONOMIA SOLIDARIOKO PROIEKTU BAT JARRI NAHI DUTE MARTXAN.



EKONOMIA SOLIDARIOAK EZ DU IRABAZI ASMORIK, ETA HONAKO IRIZPIDE HAUEN ARABERA JARDUTEN DU: EKITA-
TEA, LANKIDETZA, INGURUMEN-IRAUNKORTASUNA, LA-
NAREN AITORTZA ETA INGURUAREKIKO KONPROMISOA.



ASIERREK SUKALDARITZA IKASI ZUEN, ETA GOZ-
GINTZAREN ALORREAN ARTU IZAN DA GEHIEN.



AURRERA JENDEA,
EMAN DEZAGUN
PAUSOA!



OOGIA EGITEN ETA GOZOGINTZAN ADITUA
ETA ARITUA DA: OSAGAI NATURELEKIN
EGITEKO MODUKO ERREZETA MORDOXKA
BAT DAUKA GORDETA.

OIHANE BARATZEZAINA DA
ETA BASERRIAN IBILITAKOIA
DA, TXIKITATIK.




BERTAN IKASI ZUEN LANDAREAK
ZAITZEN, BERDURAK EREITEN,
UZTA BILTZEN...



UNAI DENDARI GISA ARITU DA HAINBAT URTEZ,
ETA IAIOA DA BEZEROEKIKO TRATUAN.



OLATZEK BADAKI DENETIK APUR BAT EGITEN,
ETA AISE EGOKITZEN DA EDOZEIN EGOERATAN.
ARGKETARIA, TAILER BATEKO LAGUNTZAILEA,
BANATZAILEA...



SARA INFORMATIKARIA DA, APUR BAT FRIKIA, ETA WEB-SISTEMA ETA -GARA-
PENEAN JARDUN DU. SOFTWARE LIBREAREN ETA "OPEN SOURCE" TRESNEN
ALDEKOA DA. BERE USTEZ, MALGUAK, ERAGINKORRAK ETA ERRENTAGARRIAK
DIRA ERREMITA HORIEK.



HAIN DA ZAILA LANA
TOPATZEA, ORDEA...

Lanbide

EKONOMIA SOLIDARIOKO AZOKAK GERO ETA SARRIAGO-
TAN ANTOLATUZ EDO GIZARTE-IRIZPIDEDUN KOOPERA-
TIBAK SORTUZ, KONTSUMO KRITIKOAK SUSTATZEN DA,
BETIERE, INGURUMENA ETA JENDEA ERRESPEATATZ.

KOOPERATIBA BAT
SORTUKO DUGU!

LANAK BANATUKO DITUGU, ETA
DEMOKRATIKOKI HARTUKO
DITUGU ERABAKIAK.



AZKENEAN, JARRI DUTE NIRE
IZENEAN AMONAREN BASERRIA.
GURE AMETSA BETETZEKO
AUKERA DAUKAGU ORAIN.

EKOIZPENA, SALMENTA
ETA BANAKETA KON-
TROLATUKO DITUGU,
TALDEAN.

BAINA NEKAZARITZA-
TURISMOKO BASERRI BAT
MARTXAN JARTZEA EZ DA
LANGINTZA ERRAZA...
LAGUNTZA ASKO BEHARKO
DUGU.

ORTUARI ETA LANTEGIARI ESKER
GURE BEHARRAK ASETUKO
DITUGU, ETA GURE PRODUKTU
EKOLOGIKOAK BIDALIKO DITUGU
LANDAGUNETIK HIRIRA.



MERKATU SOZIALAK KAPITALISMOARENA EZ BEZALAKO ALTERNATIBA
BAT ESKAINTZEN DU, ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EKOIZTEKO,
MERKATURATZEKO ETA KONTSUMITZEKO BESTELAKO SARE BAT,
ETA BALIO ETIKOAK, EKOLOGIKOAK, SOLIDARIOAK ETA DEMOKRA-
TIKOAK SUSTATZEN DITU.



EZ DU IRABAZI ASMORIK; AITZITIK, BERE HEL-
BURUA DA PERTSONEI, HERRIEI ETA INGURU-
MENARI MESEDE EGINGO DION EKONOMIA
ERAIKITZEN LAGUNTZEA.







BASERRI ZAHARRARI AHALIK ETA ETEKINIK
HANDIENA ATERAKO DIOGU, HARITZ-HABEAK
ETA HARRIZKO PARETAK APROBETXATUZ, ETA
BIO-ERAIKUNTZAREN IRIZPIDEAK KONTUAN
HARTUTA KONPONDUKO DUGU.



ALTZARI ZAHARRAK BERRESKUR-
RATUKO DITUGU, ETA INGURUNE
ATSEGINA SORTUKO DUGU.



MENDIZ INGURATUTA BIZI GARA, TOKIKO ZUHAITZEZ OSAT-
TAKO BASO EDER BAT DAUKAGU, ETA INGURU ITZELA
DA MENDI-BUELTAK ETA BIZIKLETA-TXANGOAK EGITEKO.



BADAKIZUE ZER DEN
ONENA? TXORRIEN
KANTUEKIN ESNATZEA.




BAI, KANTU HORIEK
ITZELAK DIRA ESTRESA
GAINETIK KENTZEKO.

BAINUGELA BANA IZANGO DA SEI
LOGELETAN, ETA LOGELETAKO BATEK
TXIMINIA ERE IZANGO DU. ZABALAK
ETA EROSOAK IZANGO DIRA.

LOGELAK BANAKA ALOKATU AHAL
IZANGO DIRA, ETA, HORREZ GAIN,
ETXE OSOA HARTZEKO AUKERA ERE
ESKAINIKO DUGU, TALDEENTZAT.



INGURUMEN-EGIAZTAGIRIEKIN
JARDUNGO DUGU, ETA
AUDITORETZA SOZIALA
EGINGO DUGU.




TRADIZIOAREN ETA MODERNITATEAREN ARTEKO OREKAN DATZA IRAUNKORTASUN EKOLOGIKOA: OREKA HORRETAN, EKONOMIAK AURRERA EGIN BEHAR DU, NATURA SUNTSITU GABE. EKONOMIAREN ALORREAN, MODU OREKATUAN UZTARTU BEHAR DIRA EKOIZPENA, KONTSUMOA ETA INBERTSIOA, HALA EPE MOTZARI NOLA EPE LUZEARI ERREPARATUTA.



ABERASTASUNA BERDINTASUNEZ BANATzea SUSTATZEN DU, OINARRIZKO BEHARRAK ASETZKO MODUAN...



...PERTSONA GUZTIEN BIZI-BALDINTZAK LEHENETSIZ.



GURE LAGUNAK, ALDIZ...

FINANTZAKETA BEHAR DUGU, PROIEKTUA MARTXAN JARTZEKO.

HARA! BADA, NIK EZAGUTZEN DUDAN BANKU BATEK BESTELAKO IRIZPIDEAK ERABILTZEN DITU.



FIARE BANCA
ETICA-RA JO DUTE.



BASERRIA ERABERRITU
NAHI DUGU, NEKAZARITZA-
TURISMOKO BASERRI EKOLOGIKO
BAT ETA GOZOGINTZA-LANTEGI
BAT SORTZEKO.



IKUSTEN DUDANAREN
ARABERA, GURE BANKU
ETIKOAREN BALDINTZA GUZTIAK
BETETZEN DITUZUE.

ETXEA ETA LURRAK
DAUZKAZUE BERME GISA.



ETORKIZUNERAKO PROIEKTUA DA, 5 ENPLEGU
SORTZEN DITU, PRODUKTU ORGANIKOAK
(EKOLOGIKOAK) EKOIZTEKO ETA MERKATU-
RATZEKO PROIEKTU GARBIA DA, EZ DUZUE EZ
PESTIZIDARIK EZ HERBIZIDARIK ERABILIKO,
ETA BERTOKO LANDAREAK ETA ESPEZIEAK
BULTZATUKO DITUZUE...

...KONTSUMO-TALDEAK ETA
ELIKADURA-BURUJABETZA
SUSTATZEA DU OINARRI...



ERA BEREAN, GARRANTZITSUA DA HURBILEKO
NEKAZARITZA SUSTATZEA, GERNIKAKO HIRI-
GUNETIK ETA TURISMO-ZENTROTIK HURBIL
BAITZAUDETE.

URDAIBAIKO BIOSFERAKO
UDALETAKO BAT
DA MENDATA.



INGURUMENAREKIKO HARREMANARI ERREPARATUTA, EGOKIA IRUDITZEN ZAIGU HONDAKINAK ETA BIRZIKLAPENA KUDEATZEKO ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BALIATZEKO DAUKAZUEN PROIEKTUA.



FIARE BANCA ETICA FINANTZA-ERAKUNDEA DA, BAINA EZ DAGO ETEKIN HANDIENEN EZTA ESPEKULAZIOAREN IRIZPIDEEN MENDE.



AITZITIK, BENETAKO EKONOMIAN INBERTITZEN DU, ETA PARTE-HARTZE KOOPERATIBOAN OINARRITZEN DA BERE BARNE-EGITURA.

BANKU ETIKOEN FINANTZAKETAK HELBURU SOZIALAK DITU, ENPLEGUAK SORTU NAHI DITU ETA EKOIZPEN-PROZESU GARBI ETA BIDERAGARRIAK HAUSPOTZEN DITU.



BANKU ETIKOAK EZ DITU FINANTZATZEN ARMAGINTZA-NEGOZIOAK EDO INGURUMENARENTZAT ETA GIZAKONTZAT ARRISKUTSUAK DIREN TEKNOLOGIEN NEGOZIOAK....



... EZTA ERE, UMEEN LAN-ESPLOTAZIOA, GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA, ANIMALIEN HAZKUNTZA INTENTSIBOA ETA ANIMALIEKIN EGINDAKO ESPERIMENTUAK...



AIZU, BESTE KONTU BAT, ZERA... TELATUA ERORTZEN BAZAIGU, ZER? EDO ISTRIPU BAT IZATEN BADUGU? ASEGUREN BAT HARTU BEHARKO DUGU, ALA?

ENE, ZENBAT GAUZA! OSO GARESTIA IZANGO DA.



ONDO LEGOKE ZIGILU ETIKOIA DUEN ASEGURU-ETXE BAT AURKITZE!



ASEGURU ETIKOIA ETA ASEGURU ARRUNTA GAUZA BERBERA DIRA, FUNTSEAN, BAINA ASEGURU-ETXEA EZ DU GURE DIRUA ESPEKULATZEKO EDO IRABAZI ASMOKO PROIEKTUETARAKO ERABILIKO.



BEGIRA, INTERNETEN BEGIRA ARI NINTZELA ZERA TOPATU DUT, CAESEK SUSTATUTAKO ASEGURU BAT. ELKARTE HORREK BALIO SOLIDARIOAK JORRATZEN DITU.



ASEGURU ETIKO ETA SOLIDARIOEK BALIO ETA PREZIO KOOPERATIBOETAN DUTE OINARRIA, ETA HAUEK DIRA BEREN KUDEAKETA-PRINTZPIOAK: MUTUALITATEA, GARDENTASUNA ETA EKITATEA.



FINANTZAKETA-ITURRI GEHIAGO BEHAZ DITUGU, HORTAZ.

NIRE LAGUN BATEK CROWDFUNDING BIDEZ ARGITARATU ZUEN BERE LIBURUA. GEUK ERE HORIXE EGIN GENEZAKE.



NEKAZARITZA-TURISMOKO BASEARRIAREN BIDERAGARRI-TASUN-PLANA ARGITARATU BEHAZ DUGU.

GOTEO WEB-PLATAFORMAREN BITARTEZ EGIN DEZAKEGU.



DAGOENEO ASEGURUA DAUKAGU-ETA, GAITZ ERDI!



TALDE-FINANTZAKETARAKO SARE SOZIALA DA GOTEO, EKIMEN SORTZAILE ETA BERRITZAILEAK AUTONOMOKI GARATZEA SUSTATZEN DU, BETIERE, EKIMEN HORREN HELBURUAK SOZIALAK, KULTURALAK, ZIENTIFIKOAK, HEZKUNTZAKOAK, EKOLOGIKOAK... BADIARA.



...GIZARTEA ETENGABE HOBETZEN JOATEKO ETA GUZTION ONDASUN ETA BALIABIDEAK ABERASTEKO AUKERA BERRIAK SORTZEN DITUZTENAK.



INTERESA DAUKAN JENDEAK DIRUA EMAN DEZAKE, ZENBAIT "SARIEN" TRUKE.

SARIETAKO BAT IZAN DAITEKE NEKAZARITZA-TURISMOKO BAsERRIAN GAU BAT IGAROTZEA, DOHAINIK.



EDO SASKI BAT, GURE PRODUKTU EKOLOGIKOENIK.



SARA, ZEU ZARA GURE INFORMATKARIA. ZER EGIN BEHAR DUGU GOTEO-N GURE NEKAZARITZA-TURISMOKO BASERRIAREN BERRI EMATEKO?



BADA... ONDO LEGOKE GURE PROIEKTUAREN AURKEZPEN-BIDE0 BAT GRABATZEA, ETA BERTAN ESATEA ZER EZAUGARRI DITUGU, GU NOR GAREN, ZER JENDE-MOTARI ESKAINTZEN DIOGUN...



BASERRIA TXUKUNDU BEZAIN LASTER GRABATUKO DUGU!



KOOPERATIBA BAT GARELA ESAN DEZAKEGU, NEKAZARITZA-TURISMOKO BASERRI BAT IREKIKO DUGULA ETA GURE JAKI EKOLOGIKO PROPIOAK EKOTZIKO DITUGULA: ORTUA, HAZTEGI TXIKI BAT ETA GOZOGINTZA-LANTEGI BAT EDUKIKO BAITITUGU.

ETA JATORDUAK PRESTATUKO DITUGU HALA APOILOENTZAT NOLA BISITARIENTZAT, BIZI GAREN NATUR INGURUA EZAGUT DEZATEN, ETA, ERA BEREAN, ESKUALDEKO KONTSUMOTALDEAK HORNTZEKO.

KONTSUMO-TALDEETAN HAINBAT LAGUN ELKARTZEN DIRA, MODU OSASUNTU ETA SEGURUAN KONTSUMITZEKO HELBURUAREKIN. ZUZENEAN EKOTZILEARI ESKATZEN DITZKIOTE PRODUKTUAK, BITARTEKARIKIK GABE, ETA PRODUKTUEN TRUKE DAGOIKIN PREZIOA ORDANTZEN DUTE.

NOIZ HASIKO GARA?

LEHENIK ETA BEHIN, BASERRIA KONPONDU BEHAR DUGU; ETA LABEA EZ DABIL.

ETA LANTEGA MARTXAN JARRI BEHAR DA.

ZURTEK ENPRESAKOEI DEI GENIEZAIKE; GIZARTERATZE-ENPRESA BAT DA ETA KONPONKETAK EGITEN DITUZTE. BEREN AHOLKUAK LAGUNGARRIAK IZAN DAKIZKIGUKE, PROIEKTUA DISEINATZEKO ETA GAUZATZEKO ORDUAN.

INGURUMENA ERRESPEZATZEN DUTEN MATERIALAK ERABILTZEN DITUZTE BETI.

BADA, ORDUAN EGIN DIEZAGUTELA AURREKONTU BAT DENA KONPONTZEKO: PARETAK, TEILATUA, HODITERIA, GASA, BEROGAILUAK, AIRE EGOKITUA...

BAI, HAINBAT HOBE, HAU GUZTIA ERABAT HERDOILDUTA DAGO-ETA...





LUR, ZATOZ HONA, POLIT HORI. EZ DA EZER GERTATZEN, TXORO HAUEK EZ ZAITUZTE ULERTZEN, BESTERIK EZ...

GIZARTERATZE-ENPRESAK PROIEKTU EKONOMIKOAK DIRA, BAINA JENDEA JARTZEN DUTE ERDIGUNEAN, ETA LAN-GIZARTERATZE ERRAZTEAZ GAIN, ENPLEGU-SORRERA ETA GIZARTE-ABERASTASUNA BULTZATZEN DITUZTE.



PUF, BAINA LABEAK ENERGIA MORDOA XAHUTUKO DU, SOS GUZTIAK GASTATUKO DITUGU HORRETAN...

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK BILATU BEHAR DITUGU, KONTSUMO ARRAZIONAL ETA ERAGINKORRAGOA LORTZEKO.



GOIENER KOOPERATIBAKO KIDE EGIN GINTEZKE ENERGIA-BURUJABETZA LORTZEKO, ALEGIA, ERABILIKO DUGUN ADINA ENERGIA GUK GEUK SORTZEKO.


GAINKOSTURIK GABE, ENERGIA GARBI ETA BERRIZTAGARRIA.



BAINA, ORDUAN, ZER, EGUZKI-PLAKAK JARRI BEHARKO DITUGU TEILATUAN?

GURE NEKAZARITZA-TURISMOKO BASERRIAK ESPAZIO-ONTZI BATEN ITXURA IZANGO DU!







BA AL ZENEKITEN BIOMASAREKIN ERE BEROTU DAITEZKEELA ERAIKINAK? HALAXE EGITEN DUTE BERA-N.



GOIENER-EKOEK AHOLKUAK EMAN AHAL DIZKIGUTE BIOMASAREN ERABILERAREN INGURUAN, GURE NEKAZARITZA-TURISMOKO BASERRIAN NOLA JARRI JAKITEKO: ZORU BERO-EMALEA, ERREGAI ORGANIKOKO GALDARAK...



EGIA, HORREK EZ DU IA KUTSATZEN. ERREGAI HORI OSKOLEKIN, HEZURNOEKIN ETA EZPALEKIN EGITEN DA; GAINERA, MENDIAK GARBITZEKO BALIO DU, ETA SUTEAK SAHISTEN DITU.



BAKEAN UZTEN DU OZONOGERUZA, ETA IA LAU ALDIZ MERKEGEOA DA.

HEZURNOAK?



ONDO DA, BAINA ITZUL GAITEZEN JANARIAREN KONTURA: FRUTAK ETA BERDURAK ORTUAN, OGIA ETA ERROSKILAK LANTEGIAN...

ETA GAZTAK??? MAITE DITUT, BADA, ESNEKIAK!



NIK EZAGUTZEN DUT ESNETIK IZENEKO BESTE KOOPERATIBA BAT. KALITATEZKO PRODUKTU OSASUNGARRIAK ESKAINTZEN DITUZTE, ETA EZ DIRA BATERE GARESTIAK.

NATURA ERRESPELTATZEN DUTE, ETA BAITA BASERRIETAKO OHITURAK ERE. AGIAN, DEI EGIN DIEZAIKEGU, EA ZER DIOTEN...



HEMENTXE ESNETIK-EN WEBGUNE! BAI JOGURT GOXOAK! DERREPENTEAN ESKATUKO DIZKIET BATZUK.

ZAUDE PIXKA BATEAN! HASTEKO, KALKULATU EGIN BEHAR DUGU EA ZENBAT ESNE BEHARKO DUGUN, ZENBAT JOGURT, ZENBAT GAZTA, ZENBAT GURIN...

ESNETIK KOOPERATIBA MISTOA DA, ETA ESNEKI ETIKOAK EKOIZTEN ETA KONTSUMITZEN DITUZTE. ERABAKIAK ELKARLANEAN HARTZEN DITUZTE: EKOIZLEEK, KONTSUMITZAILEEK ETA KOLABORATZAILEEK.



EZ DUTE GEHIGARRIRIK ERABILTZEN, ETA, AHAL DEN HEINEAN, ONTZI BERRERABILGARRIAK BALIATZEN DITUZTE, AHALEGIN BATERATUA EGINEZ ELIKADURA-BURUJABETZARA BIDEAN.



ETA EDARIAK NON LORTUKO DITUGU? SAGARDOA, TXAKOLINA, ETA ABAR.

HEMENDIK GERTU BADAGO KOOPERATIBA BAT: SAGARDOA EGITEN DUTE, NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO ZIGILU OFIZIALAREKIN.




LEA ARTIBAI ESQUALDEKO BASERRITARREK OSATZEN DUTE KOOPERATIBA HORI.

INGURUKO BASERRIETAKO SAGARRAK ERABILTZEN DITUZTE.



TXAKOLINA ERE EKOIZTEN DUTE.

ARTISAUEN MODUAN EGITEN DUTE DENA, PRODUKTUEK BERMERIK ONENAK DAUZKATE, ETA GURE LURRALDEKO ZAPOREAK HELARAZTEN DITUZTE.



AZOKA ETA MERKATUETAN SALTZEN DITUZTE BEREN PRODUKTUAK, BAINA BAITA BANATZAILERIK EKOLOGIKO TXIKIEN BIDEZ ETA BERTOKO DENDETAN ERE.



BIDE BATEZ, BA AL ZENEKITEN EKHI-REKIN ORDAIN DEZAKEGULA ORAIN? GURE NEGOZIOA BULTZATZEKO, EKHI-REKIN ELKARTU GINTEZKE.

ZER DA EKHI?



BERTOKO TXANPONA DA EKHI, ESKUALDEKO BEZEROENGANA HURBILTZEN GAITU, ETA TXANPONA ERABILTZEN DUEN JENDEAREKIN HARREMANETAN JARTZEKO BALIO DIGU.

HARTARA, GERTUKO MERKATARITZA AKTIBATZEN DUGU, EKONOMIKOAGOA ETA EKOLOGIKOAGOA.



EUROAK EMATEN DITUZU EKHI-EN TRUKE. DOZENAKA DENDAK ETA EHUNKA PERTSONAK ERABILTZEN DUTE HONEZKERO.

ETA BENETAKOAK DIRA, ALA MONOPOLYKO BILLETEEN MODUKOAK?



BAI, EMAKUMEA, BENETAKOAK DIRA ETA FALTSIFIKAZIOEN AURKAKO NEURRIAK ERE BADITUZTE. ELKARTEAN DAUDEN DENDEN ARTEAN EROSI ETA SAL DITZAKEZU PRODUKTUAK; HAIN ZUZEN, HORIXE EGIN DEZAKEGU GURE OGI, GOZO ETA ESNEKIEKIN.



EKHI-AK BERTAN GERATZEN DIRA, ETA, HORRELA, GARRAIOA ETA GAS KUTSAKORREN KOPURUA MURRIZTEN DITUGU.



MENDATA

BILLETEAK IRAINGI EGITEN DIRA, ETA, HORRELA, ERABILERA SUSTATZEN DA, PILAKETA BEHARREAN.

EUROAK BETI DAUDE HOR, BABES GISA, ETA EKHI-AK BANKU ETIKOAN GORDETZEN DIRA, GUREAREN MODUKO EKIMEN ALTERNATIBO ETA IRAUNKORREI KREDITUAK EMATEKO HELBURUAREKIN.



IDEIA ONA DA; KONTUAN IZAN BEHAR DUGU.

ETA NEKAZARITZA-TURIS-MOKO BASERRIA MARGOTZEKO ZER ASMO? IZAN ERE, HORI NAHIKO GARESTIA IZANGO DA...

JAKIN DUDANEZ, HERRIAN DENBORA BANKU BAT DAGO; BERTAN, DIRURIK ERABILI GABE, GAITASUNAK ELKARTURKATZEN DIRA, ETA JASOTAKO ETA EMANDAKO ZERBITZU-ORDUAK ZENBATZEN DIRA.



1h. GALDARA IKUSKATZEA

1h. GITARRA-ESKOLA





DENBORA BANKUAREN HELBURUA DA BESTELAKO ELKARTRUKE-UNITATE BAT SORTZEA, MONETA-EREDUTIK KANPO, JENDEARI BEHARREZKOA DEN HORREN TRUKE ORDAINTEZKO, EKARPENAK BERDINTASUNEZ NEURTUZ ETA BAKOITZAREN GAITASUNEI PROBETXUA ATERAZ.



ZENBAT ETA DENBORA-KREDITU HANDIAGOA ETA ZENBAT ETA JENDE GEHIAGOK KONPARTITU BERE DENBORA ETA TALENTUAK, ORDUAN ETA ABERATSAGOA IZANGO DA KOMUNITATEA.

ZERBAIT AHAZTU DUGU: KAFAA, TXOKOLATEA, INFUSIOAK, AZUKREA... BEHARKO DITUGU, NEURRI HANDIAN, GURE NEKAZARITZA-TURISMOKO BASERRIKO BEZEROEI ESKAINTZEKO.

BIDEZKO MERKATARITZA JORRATZEN DUTEN EKIMENETARA JO DEZAKEGU.



BIDEZKO MERKATARITZAK NEKAZARI-MUGIMENDUAK ETA EKOIZPEN-KOOPERATIBAK SUSTATZEN DITU, MERKATU-BALDINTZA HOBEAK ESKAINIZ ETA LAN-ESKUBIDEAK BABESTUZ.



BADA, EZ, DENDA ASKOTARA JOAN GAITEZKE, ADIBIDEZ, KIDENDA-RA; HAIEK EMANGO DIZKIGUTE KALITATEZKO PRODUKTUAK



HARA, NIK, ORAIN ARTE, AZOKETAN BAINO EZ DITUT IKUSI...



SOLDATA ETA LAN-BALDINTZA DUINAK.



UME-ESPLOTAZIORIK EZ.



EPE LUZERA ETA KALITATEZKO PRODUKTUAK SALTZEN JARRAITZEKO KONPROMISOA.



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA, ETA TOKIKO KOMUNITATEAK INDAITZEA.



INGURUMENAREKIKO ERRESPECTUA.



BIDEZKO MERKATARITZAREN ZIGILUA, FAIRTRADE ZIGILUA, PRODUKTUETAN JARTZEN DA, ETA HORREK BERMATZEN DU PRODUKTUAK BIDEZKO MERKATARITZAKOAK DIRELA. ZIGILUARI ESKER, AISE IDENTIFIKATZEN ETA SALTZEN DIRA, ETA BIDEZKO MERKATARITZA HEDATZEN LAGUNTZEN DU.



15 MANGO ESAN NIZUN, EZ 15 MANGO-ZAKU!



EEEEEE... TIRA... BADA, ORDUAN, EGIN EZAZU MANGO-SORBETEA, MANGO-TORTILLA, MANGO-PASTELAK...



URTE ERDIRAKO MANGOAK DAUZKAGU, GUTXIENEZ!

KONTSUMITZAILEOK, BIDEZKO MERKATARITZAKO ZATI GARRANTZITSUENETAKO BAT GAREN ALDETIK, GURE ALEA JAR DEZAKEGU TOKIKO ETA GARAIKO PRODUKTUAK KONTSUMITUZ, AUZOKO DENDETAN, AZOKETAN ETA MERKATUETAN EROSI, ETA, FUNTSEAN, MUNDU GUZTIAREN ZAKO MESEDEGARRIAGOA DEN EKONOMIA BAT SORTZEN LAGUNDUZ.



IA DENA ZEHAZTU DUGU; ORAIN, MARTXAN JARTZEA BAINO EZ ZAIGU FALTA!



GURE NEKAZARITZA-TURISMOKO BAZARRIAK, EZER BAINO LEHEN, ALTERNATIBOIA IZAN BEHAR DU; IZAN ERE, ALDAKETA EKONOMIKOIA POSIBLE DA, ETA ABIAN DA HONEZKERO!



AMAIERA

Ekonomia solidarioaren abenturan murgiltzeko



- Ekonomia Solidarioa (REAS Red de Redes): www.economiasolidaria.org
- Garapen Alternatiboa (Alboan-COMPARTE): <http://desarrollo-alternativo.org>
- Open Source (Kode Irekia): https://es.wikipedia.org/wiki/Codigo_abierto
- Kooperatibismoa: KONFEKOOP (Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa): www.konfekoop.coop
- Merkatu Soziala: www.konsumoresponsable.coop
- Euskal Herriko Merkatu Sozialaren katalogoa: www.economiasolidaria.org/catalogo_MES_EH
- Bioeraikuntza: EcoHabitat aldizkaria: www.ecohabitat.org
- Agroekologia: <https://es.wikipedia.org/wiki/Agroecologia>
- Ingurumen iraunkortasuna: <https://es.wikipedia.org/wiki/Sostenibilidad>
- Fiare Banca Etica: www.fiarebancaetica.coop
- ETHSI (Aseguru Etiko eta Solidarioa): www.ethsi.net
- CAES (Cooperación para el Aseguramiento Ético y Solidario): www.caes.coop
- Crowdfunding (Mikromezenasgoa): <https://es.wikipedia.org/wiki/Micromecenazgo>
- Goteo: <https://goteo.org>
- Bizkaiko kontsumo taldeak (Nekasarea): <http://ehnebizkaia.eus/index.php/es/nekasarea>
- Gipuzkoako kontsumo taldeak (Basherriak): <https://basherri.wordpress.com>
- Arabako kontsumo taldeak (Bionekazaritza): www.bionekazaritza.net
- Gizarteratze Enpresak: Gizatea (Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea): www.gizatea.net

- Zurtek (gizarteratze enpresa): www.zurtek.net
- Goiener (Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba): www.goiener.com
- Elikadura Burujabetza Euskal Herrian (Elikaherria): www.elikaherria.eus
- Esnetik (esnekien ekoizpen eta kontsumorako kooperatiba mistoa): www.esnetik.com
- Tokiko moneta: https://es.wikipedia.org/wiki/Moneda_local
- EKHI (Bizkaiko tokiko moneta): www.ekhitxanpona.org
- Denbora bankua: https://es.wikipedia.org/wiki/Banco_de_tiempo
- Bidezko Merkataritza: WFTO (Bidezko Merkataritzako Mundu Erakundea): www.wfto.com
- Kidenda (bidezko merkataritzako erakunde eta denda): www.kidenda.org

(komikiaren agerpen hurrenkera jarraituz)



Gu hobeto ezagutzeko:

- Alboan: www.alboan.org
- REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea): www.economiasolidaria.org/reaseuskadi
- Amaia Ballesteros (diseinugile grafikoa, irudigilea eta komiki marrazkilaria): <http://www.amaiaballesteros.com>